

COVID enbatan ez hondoratzeko flotagailua

Irakasleak

Oharra: Hezkuntzatik datozen jarraibideak etengabe aldatzen ari dira, beraz aldaketak jaso heinean gure dokumentua eguneratzen joango gara.

Azken eguneratze data: 2021eko otsailaren 19a.

1. Langile baten zaurgarritasuna baloratzeko jarraitu beharreko pausoak

Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzu bidez, BEREZIKI SENTIKORRAK DIREN LANGILEEN BALORAZIOA gauzatuko da:

A. **Honako dokumentua** online bete.

B. E-mailez bidali (prebentziohezkuntza@euskadi.eus helbidera) COVID 19arekin lotutako **gaixotze-tasari eta kokapen klinikoari buruzko txostena (informe morbilidad)**.

Dokumentu hori inprimatu ondoren, medikuak bete behar du. Behin bete eta sinatu duela, eskaneatu/pdf formatura pasa eta honela izendatu:

NAN zenbakia MAP Adib.: 78456133MAP

C. E-mailez bidali (prebentziohezkuntza@euskadi.eus helbidera) patologia deskribatzen duen medikuaren txostenik eguneratuena.

Informe hauek PDF bakarrean jarri behar dira eta PDF honi izena aldatu behar zaio:

NAN zenbakia PATOLOGIA Adib.: 78456133PATOLOGIA

Behin dokumentuak bidalita, zein erantzun espero dezaket?

→ Ez zara langile zaurgarria.

→ Zaurgarria zara, baina lanean jarraitu dezakezu NBE (Norbera Babesteko Ekipamendu) egokia erabilita (adib. FFP2 maskarak).

→ Zaurgarria zara eta ezin duzu lanean jarraitu. Baja mutua bidez tramitatuko da.



2. Irakaslea den langileriaren seme/alaben artean COVIDa. Kasuistika

A. Seme-alaba kasu POSITIBOA da (PCR +), sintomak izan zein ez

Berarekin bizi diren pertsona guztiei baja emango zaie berarekin kontaktu zuzena izan dutelako.

Seme-alaba positiboa bada, gurasoek PCRaren emaitzak jaso bitartean edo baja eskuratu bitartean, justifikatuz jotzen da lanera ez joatea. Horretarako "zinpeko aitortpena" gehi arakatzailaren mezuaren kopia edota "zinpeko aitortpena" gehi medikuaren hitzorduaren kopia aurkeztu beharko dira. Honek ikastetxeak ordezkoa eskatzeko soilik balio du. Ondoren justifikatu behar da aldi baterako baja eta alta dokumentuak aurkeztuz.

B. Seme-alabaren gelakide batek POSITIBO eman du

Seme-alabarekin kontaktu zuzena izan duenez, etxean egon beharko du berrogeialdia betetzen, gurasoek aldiz lanera joan beharko dute, ez baitaie bajarik emango. Batzutan gela osoa konfinatzen da, eta beste batzutan gela burbuiletan antolatuta badago, burbuila bat soilik ere konfinatu daiteke (kontaktu zuzenen azterketaren ondorioz).

Informazio gehiago

Zenbait ohar:

→ Mendekotasun egoeran dagoen adineko pertsona bat zurekin bizi bada, jar zaitetz gurekin harremanetan jarraibideak argitzeko.

→ Ikastetxea ez da itxiko gela kopuru jakin bat ixten delako; gela zein ikastetxea ixtea Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuari dagokio.



→ Berrogeialdian dagoen irakasleak ezin du online lanik egin: irakasle bat positiboa bada, edo konfinamenduan badago, (bi kasuetan baja eduki behar du) zuzendaritzak ordezkoa eskatu behar du, nahiz eta online lan egiteko egoeran egon.



→ Ordezlagunea: konfinamenduan dagoen ordezkoak ezin du Ordezlagunean parte hartu. (Ordezlagunean justifikatu gabeko uko egitera pasa zure egoera, 10 eguneko epean baja helarazi ordezkaritzak uko egite justifikatura pasa zaitzan. Osatutakoan, alta ordezkaritzara helarazi lanerako prest egoerara pasa zaitzaten berriro Ordezlagunean parte hartu ahal izateko).

3. Ikastetxeak

→ Ikastetxeetako ikasleen sintometaz, konfinamenduaz, PCRren gorabehera guztiekin eskualdeko OSI-a arduratzen da. Ikastetxe bateko langile batek sintomak baditu, bere zonaldeko OSIarekin harremanetan jarri behar da eta era berean bere ikastetxeko zuzendaria jakinaren gainean jarri. PCRa + suertatzen bada, ondoren Lan Prebentzio Zerbitzua zurekin harremanetan jarriko da.

→ Ikastetxeak berrogeialdian egon behar duen langilearen ordezkoa eskatu behar du, nahiz eta online lan egiteko izan. Salbuespen egoera honetan, ordezkoa eskatzeko, ez da derigorrezkoa izango titularraren baja agiria izatea.

→ Hezkuntzako langile baten seme-alabaren bat negatiboa izanda berrogeialdian badago, hezkuntzako langilea den



gurasoak ez du zaintzarako baimenik (beste edozein gaixotasunen kasuan gertatuko litzatekeen moduan).

→ Haurra berrogeialdian dagoenean baina gurasoei bajarik ematen ez zaienean, karrerako funtzionarioak eta urte oso bat etenik gabe lan egin duen ordezkoak, norberaren eginkizunetarako baimena eskatu ahal izango dute.

→ Ikastetxean eskuragarri izan behar dira: maskara kirurgikoak, gel hidroalkolikoak, paperezko eskuoihala eta pedaldun paperontzi espezifikoak.

→ Osasuna babesteko ikastetxeak gastatutakoaren fakturak Hezkuntza Sailera bidali dirua bueltatzeko eskatuz.

4. Eskatzen dugu

→ Lehen Hezkuntzako 4.mailara arteko irakasleentzat ere FFP2 MASKARAK (LH 5.mailatik gora ikasleek askoz hobeto erabiltzen dute maskara eta arriskua asko txikitzen da). Irakasle batek bere osasun arazoak direla eta FFP2 erabiltzea nahitaezkoa badu ikastetxeak esakaini behar dio. Ikastetxeetan 59 urtetik gorako irakasleriarentzako FFP2 maskarak.

→ Nahitaezko betebeharragatik baimen ordaindua, 14 urtetik beherako pertsonak edo mendekotasun egoeran dagoen bat zurekin bizi bada, eta nahitaezko konfinamendu agindua edukita. Kontziliazioa errazteko ezinbestekoa iruditzen zaigu neurri hori ezartzea.

